# Urasandiren urtea

## Eskailera mekanikoak jarri eta aparkalekuak egin dira



JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS
▪▪▪ Auto kopuruak aparkatzeko arazoak sortzen ditu Elgoibarren.

Urasandiko auzokideak sarri kexatu izan dira etxera heltzeko dituzten zailtasunez. Alde batetik, malda; eta bestetik, aparkaleku falta, iristea ez zen batere erraza. Arazo hauei irtenbidea jartzeko Elgoibarko Udalak Izartu egitasmoaren laguntzaz eskailera mekanikoak jarri eta 36 aparkaleku sortu ditu.

Eskailera mekanikoei dagokienean, asmoa sei tartetan jartzea zen, baina aurrekontu murrizketa dela eta, lau baino ez dira jarri. Sei tarteetan eskailera jartzeko beharrezko aurrekontua 1.081.821,78 eurokoa zen, baina aurrekontua 781.315,73 eurokoa zenez, gainontzeko bi tarteak jartzeko itxaron egin beharko da.

Lehenbiziko bi tarteen instalazio lanak uztailaren 19an hasi ziren, bigarren biena, berriz, uztailaren 22an. Inagurazio ekitaldia, San Bartolome jaietan, abuztuaren 28an izan zen.

### Autoen arazoa

Kalamua kalean sortzen zen zirkulazio arazoa konpontzeko 36 aparkaleku sortu dira aurten Urasandi auzoan, *tontodromoa* izenez ezagutzen den lekuan. Aparkalekuen inguruan, sartzeko bidea sortu da, 4,95 metroko gehienezko eta 3,50eko gutxienezko zabaleraduna. Inguruko patinatzeko pista bere horretan mantendu da.

Pedro Muguruza etorbidean, izen bereko eskola zaharren inguruan, beste 24 aparkaleku sortu dituzte.

Bestalde, Udalak aurten babes ofizialeko etxebizitzak eraiki eta herritarren eskura alokagai jartzeko saiakera egin du. Martxoaren 21an zozketatu ziren lehen etxebizitzak. Iñigez Karkizano kalean eraiki ziren 40 etxebizitza izan ziren zozketagai. Asmoa, zozketa hartan Urruzunon eraikiko ziren etxebizitzak ere zozketatzea zen, baina eraikuntzaren ardura zuen enpresak porrot ekonomikoa adierazi eta bertan behera laga zituen lanak. Zozketa hau, ekainean egin zen lanak nork egingo zituen erabaki gabe bazegoen ere.

Arregi Torren eraikitzea erabaki zen 24 etxebizitzako eraikinarekin ere ez ziren arazoak falta izan. Inguruko bizilagunei kokalekua ez zitzaien egokia iruditzen eurenarengandik gertuegi zeudelako. Azkenean, Udalak beste norabide batean eraikitzea onartu zuen.

ileapaindegia
solarium
FADEK
Errosario kalea, 35 behea - 20870 ELGOIBAR - Tel.: 943 74 26 92

MEKANIZATUAK
Etxepe
Ibaitarte kalea, 2 • P. K., 153
Tel.: 943 74 12 97-943 74 06 64
Faxa: 943 74 43 21
e-mail: etxepesa@stl.logiccontrol.es
20870 ELGOIBAR
LAN BEREZIAK

Idoia Arrillaga
PODOLOGA
CPI
IBILTZEN
ZENTRU PODOLOJIKOA
Ubitarte Plaza, 11
Tel.: (943) 743 656
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

DEKORAZIO ALTZARIAK
Iriondo
Proiekto eta erreformak, gremioen zuzendaritza
Santa Ana, 4-6 • Tel.: 943 74 12 34
ELGOIBAR - GIPUZKOA

IRIONDO KIROLAK
MENDI eta KIROL GUZTIETARAKO EKIPAMENDUAK
Gazte txartelarekin %10
DENDA: San Frantzisko, 37
ERAKUSKETA: San Frantzisko, 54
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 74 09 56 - Faxa: 943 74 45 37

OLATZ, s.l.
ALTZARIAK
BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Pedro M. Urruzuno kalea, 8 - Tel.: 943 74 38 44
ELGOIBAR

Ei
Elgoibarko Institutua
EUSKAL HEZKUNTZA PUBLIKO ON BATEN ALDE
ARREITURRE INSTITUTUA (DBH) San Roke, 11
B. EZENARRO INST. (BATX + LH) Arregitorre, 2
Tel.: 943 74 80 19 • Faxa: 943 74 82 30 • e-mail: bulegoa@elgoibar.hezitek.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Zure aisialdirako gida
www.Egunkaria.com/agenda

IDAMA
ILE APAINDEGIA
IDAMA
Santa Ana, 7 behea
✆ 943 74 40 26
ELGOIBAR

PITXINTXU
TEL-FAX : 943 74 32 06
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
www.pitxintxu.com

URZELAI
ELEKTRIZITATEA
ARGIZTAPENA
Santa Ana, 12 - 14 • Tel.: 943 74 13 76 • Mug.: 608-77 40 32
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)